




Federación Española de Sociedades  
de Profesores de Matemáticas

# XXXI. KANGURU MATEMATIKOA

## MAILA 1

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. MAILA

2026ko martxoaren 24a



**A eredua**

### Probaren iraupena eta galdera bakoitzaren puntuazioa

*Proba egiteko denbora ordubete eta 15 minutukoa da.*

*Galdera bakoitzeko erantzun zuzen bakarra dago. Gaizki erantzundako galdera bakoitzeko honela penalizatuko da: ondo erantzundako galderaren balioaren laurdena. Erantzun gabeko galderak ez dute punturik emango, eta ez dute penalizaziorik izango. Hasieran 30 puntu izango dituzu.*

### Erantzun-orria nola bete eta nola aldatu emandako erantzuna

Adibidez, 1go galderan **B** aukera markatu nahi bada, goiko lerroko koadroa bete behar da.

A	<input type="checkbox"/>	B	<input checked="" type="checkbox"/>	C	<input type="checkbox"/>	D	<input type="checkbox"/>	E	<input type="checkbox"/>
---	--------------------------	---	-------------------------------------	---	--------------------------	---	--------------------------	---	--------------------------

Erantzuna aldatu nahi baduzu eta **D** aukera markatu nahi baduzu, **B** aukeraren koadroa erabat bete behar duzu eta aurreko moduan **D** koadroa markatu behar duzu.

A	<input type="checkbox"/>	B	<input checked="" type="checkbox"/>	C	<input type="checkbox"/>	D	<input checked="" type="checkbox"/>	E	<input type="checkbox"/>
---	--------------------------	---	-------------------------------------	---	--------------------------	---	-------------------------------------	---	--------------------------

Galdera bati ez erantzuteko koadro guztiak hutsik utzi behar dira.

A	<input type="checkbox"/>	B	<input type="checkbox"/>	C	<input type="checkbox"/>	D	<input type="checkbox"/>	E	<input type="checkbox"/>
---	--------------------------	---	--------------------------	---	--------------------------	---	--------------------------	---	--------------------------

**Galdera batean bi koadro baino gehiago agertzen badira markatuta edo aurrekoak ez diren beste marka batzuk agertzen badira, baliogabetu egingo da, eta erantzun okertzat joko da.**

**Jarraian agertzen direnen antzeko markek esan nahi dute galdera ez dela zuzena eta, beraz, zigortu egingo da.**

A	<input type="checkbox"/>	B	<input checked="" type="checkbox"/>	C	<input type="checkbox"/>	D	<input checked="" type="checkbox"/>	E	<input type="checkbox"/>
---	--------------------------	---	-------------------------------------	---	--------------------------	---	-------------------------------------	---	--------------------------

A	<input type="checkbox"/>	B	<input checked="" type="checkbox"/>	C	<input checked="" type="checkbox"/>	D	<input checked="" type="checkbox"/>	E	<input type="checkbox"/>
---	--------------------------	---	-------------------------------------	---	-------------------------------------	---	-------------------------------------	---	--------------------------

A	<input type="checkbox"/>	B	<input type="checkbox"/>	C	<input checked="" type="checkbox"/>	D	<input type="checkbox"/>	E	<input type="checkbox"/>
---	--------------------------	---	--------------------------	---	-------------------------------------	---	--------------------------	---	--------------------------

A	<input type="checkbox"/>	B	<input type="checkbox"/>	C	<input type="checkbox"/>	D	<input checked="" type="checkbox"/>	E	<input type="checkbox"/>
---	--------------------------	---	--------------------------	---	--------------------------	---	-------------------------------------	---	--------------------------




# XXXI. KANGURU MATEMATIKOA 2026

## Maila 1






### Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren 1. maila

#### 3 puntuko galderak





**1** Zorua 5 baldosa ezberdinek osatzen dute. Baldosak eredu errepikakor baten arabera jarrita daude. Evak zorua argazkia egin du telefonoarekin. Zein da 5 baldosen eredu errepikakorra?




**2** Lunaren eskumuturrekoa hiru ale mota ezberdinekin egina dago. Bi ale esferiko daude elkarren ondoan. Ez daude bi ale kubiko bata bestearen ondoan. Hauetako zein izan daiteke Lunaren eskumuturrekoa?




3 Zer pieza falta da eredia osatzeko?




E) Goikoetatik bat ere ez



4 Edortak bi motatako paper zatiak ditu:



Zenbat zati behar ditu forma hau duen itsasontzi bat sortzeko?



A) 4

B) 5

C) 6

D) 7


E) 8

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila

**5** Dado batek sei aurpegi ditu, 1etik 6ra zenbakiak. Kontrako aurpegien zenbakien batura 7 da beti. Erpin komun bat duten hiru aurpegietako zenbakien batura 14 da. Zein dira beste hiru aurpegien zenbakiak?

- A) 1, 2 eta 4    B) 3, 5 eta 6    C) 2, 5 eta 6    D) 1, 2 eta 6    E) 2, 3 eta 4


**6** Lau solido (zilindroa, piramide karratua, kubo eta kono bat) daude ikasgelan zintzilik, irudian agertzen den bezala. Beatriz behetik begira dago. Zer ikus dezake?




- A)
- B)
- C)
- D)
- E)


Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila

**7** Txantilo batean, lerro etenek non tolestu adierazten dute, eta lerro jarraituek non moztu. Ondorengo txantiloietatik, zein erabili zuen Edortak hurrengo irudia sortzeko?



- A)
- B)
- C)
- D)
- E)

**8** Andreak hainbat txantilo jarri nahi ditu honako formarekin , bata bestearen gainean, honelako lore bat osatzeko:



Txantiloak gainjarri egin daitezke. Zein da Andreak behar dituen gutxieneko txantilo kopurua?


- A) 2      B) 3      C) 4      D) 5      E) 6

**9** Pizza bat 8 zati berdinetan moztu da. Imanolek pizzaren  $\frac{1}{4}$  a jaten du eta Eiderrek geratzen denaren  $\frac{1}{2}$  a jaten du. Zenbat zati geratzen dira?

- A) 1      B) 2      C) 3      D) 4      E) 5

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila

**10** Lehenengo irudian kanguru baten irudia ikus daiteke. Kanguruaren irudia bi aldiz islatzen da, bigarren irudian agertzen den bezala. Islak berdin jarraitzen du.



Nola ikusiko da kanguruaren irudia ilunduta agertzen den triangeluan?

- A) B) C) D) E) Goikoetatik bat ere ez



### 4 puntuko galderak

**11** Irudimenen Kobazulorako bisita hiru plazako ibilgailu batean egiten da. Ibilgailuak bi minutuan behin irteten dira, eta ibilbideak 10 minutu irauten du. 30 laguneko talde baten lehen hirukoteak 13:00etan hasi zuen bisita. Zer ordutan jaitsi zen azken hirukotea ibilgailutik?


- A) 13:18    B) 13:20    C) 13:28    D) 13:30    E) 14:40

**12** Zein aukerak erakusten du irudia bi zati berdinetan banatzen duen ebaki bat?


Zatiak alderantzikatuta egon daitezke.




A)




B)



C)



D)



E)

**13** 24 orduko erloju digital batek ondo funtzionatzen du, baina bere zenbakizko posizioetako bi trukaturata daude. Une honetan, 15:69ak dira. Zer markatuko du minutu bat barru?

A) 10:70

B) 15:70


C) 16:69

D) 16:70

E) 25:69


Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila

**14** Hurrengo irudian, puntu batetik bestera mugitu ahal izango zara, baldin eta bigarrena lehenengoa baino gorago badago. Baldintza horietan, guztira zenbat bide daude irteera puntutik helmugaraino?



- A) 13    B) 11    C) 9    D) 7    E) 5


**15** 0, 1, 2, 3, 4, 5 eta 6 zenbakiak irudiaren zirkuluetan idatzita daude. Zenbaki bakoitza zirkulu desberdin batean jarrita dago, eta errenkada bakoitzeko zenbakien batura bera da.




Zein da erdiko lerroan idatzitako zenbakien biderkadura?

- A) 0    B) 15    C) 18    D) 24    E) 30


**16** Inesek paper-zerrenda bateko laukitxoetan 1etik 16rako zenbakiak idatzi zituen, ondoko irudian agertzen den bezala:



Gero zerrenda erditik tolestu zuen, irudi honetan ikusten den bezala:



Erditik tolestean jarraitu zuen, eta hurrengo bi laukitxoekin bakarrik amaitu zuen:




Gero, orratz batez zerrenda osoa zeharkatu zuen 1 zenbakia idatzita zegoen laukian, zerrenda zabaldu eta lauki zulatuen zenbaki guztiak batu zituen. Zein da lortutako baturaren balioa?

- A) 64    B) 68    C) 99    D) 128    E) 136

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila

**17** 1 irudian, 22 cm-ko perimetroa duen trapezio bat ageri da. 2 irudian, 1 irudiko trapezioaren berdinak diren lau trapezio daude, eta bata bestearen gainean jarri gabe elkartzen dira, haizagailu bat sortzeko. Haizagailuaren perimetroa 56 cm-koa da.








Zein izango da 1 irudiko trapezioaren AB aldearen luzera?

- A) 8 cm      B) 6 cm      C) 3 cm      D) 4 cm      E) 5 cm

**18** Kutxa batean gozokiak daude. Karlosek, Pablok eta Simonek gozokiak hartzen dituzte txandaka: Karlosek 1 hartzen du, gero Pablok 2, gero Simonek 3, gero berriro Karlosek 4, Pablok 5 eta abar. Arau hori errespetatzeko gozoki nahikorik geratzen ez denean, tokatzen zaionak geratzen diren guztiak hartzen ditu. Azkenean, Pablok 25 gozoki ditu. Zenbat gozoki zeuden kutxan hasieran?

- A) 48      B) 50      C) 55      D) 56      E) 65

**19** Irudi hauetako zeinetan du azalera gainerakoen tamaina desberdina?



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila

**20** Ikasle talde batek sagar kutxa bat dauka. Denen artean nodu ekitatiboan banatu nahi dituzte. Ondokoaz konturatzen dira:

- 80 sagar gehiago baleude, ikasle bakoitzak 4 sagar gehiago jasoko lituzke.
- 8 ikasle gutxiago baleude, bakoitzak 6 sagar gehiago jasoko lituzke.

Zenbat sagar daude kutxan?

A) 240      B) 180      C) 160      D) 120

E) Ezin da sagar kopurua zehaztu

### 5 puntuko galderak

**21** Detektibe bat susmagarriak hartu zuen bidea zehazten saiatzen ari da. Susmagarriak hiru adierazpen desberdin eman ditu:

«New Yorketik Omahara joan nintzen, Chicagotik pasatuz».

«New Yorketik Kansas Cityra joan nintzen, Miamitik pasatuz».

«San Frantziskotik Omahara joan nintzen Miamitik pasatuz».


Adierazpen bakoitzean, bakarrik helmuga bat eta adierazpen horretan duen posizioa da zuzena.

Zein ibilbide hartu zuen susmagarriak?

- A) New York → Chicago → Omaha
- B) San Frantzisko → Chicago → Kansas City
- C) New York → Miami → Kansas City
- D) San Frantzisko → Miami → Omaha
- E) Chicago → San Frantzisko → Kansas City

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila

**22** ABCD karratua 4 laukizuzen gris berdinetan, 4 laukizuzen zuri berdinetan eta karratu beltz batean zatituta dago. Karratu beltzaren aldearen luzera 7 cm-koa da. Laukizuzen zuri bakoitzaren alde luzeenak 15 cm neurtzen du eta laukizuzen gris bakoitzaren alde luzeenak 29 cm neurtzen du.



Zein da ABCD karratuaren aldearen luzera?

- A) 33 cm    B) 34 cm    C) 35 cm    D) 36 cm    E) 37 cm

**23** Bost anai-arrebek loreontzietan landatu dituzte loreak. Orain hasi dira lehen loreak ernetzen. Julenen eta Endikaren loreontzietan, elkarrekin, Zoeren loreontzian baino hiru aldiz kimu gehiago daude. Endika eta Karlosen loreontzietan elkarrekin Reneren loreontzian baino bi aldiz kimu gehiago daude. Zein da Endikaren loreontzia?



**24** Juliak 9 bola ditu 1 kg, 2 kg-ko pisuekin, 9 kg-raino. Balantza batean zazpi bola jartzen ditu, orekatuta gera dadin. Horietako bi ezkerreko platerean jartzen dira eta bost eskuinekoan. Zein da erabiltzen ez diren bi bolen guztizko pisu minimoa?

- A) 5 kg    B) 7 Kg    C) 9 Kg    D) 11 Kg    E) 17 Kg

**25** Zazpi karta berdin ditugu: Sarak hiru karta aukeratzen ditu eta gero Tarak bi karta. Sararen karten batura Tararen karten batura halako bost dela konturatzen dira. Zein da aukeratu gabeko karten zenbakien batura?



- A) 14    B) 12    C) 10    D) 8    E) 6

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila

**26** Hainbat zenbaki ezabatu behar dira hurrengo taulatik, errenkada eta zutabe bakoitzaren batura 15 izan dadin. Zein izango da ezabatutako zenbakien batura?

4	7	7	4
6	4	4	5
5	5	4	6
5	8	7	4

- A) 31      B) 29      C) 27      D) 25      E) 24




**27** Zirkulu bakoitzak zenbaki bat dauka kalkuluak zuzenak izan daitezen. Zein da zirkulu grisaren zenbakien batura?

$$\begin{array}{r}
 \text{●} + \text{○} = 10 \\
 + \quad + \\
 \text{○} - \text{●} = 4 \\
 \parallel \quad \parallel \\
 16 \quad 10
 \end{array}$$

- A) 10      B) 12      C) 27  
D) 25      E) 24


**28** Hurrengo bost katiluak Leonardo, Ramon, Ana, Pedro eta Sararenak dira, ordena batean. Katiluetako helduleku guztiak zuriak edo beltzak dira. Leonardo eta Ramonen katilua tamaina berekoak dira, baina heldulekuak kolore desberdinetakoak dira. Ana eta Pedoren katiluak tamaina desberdinekoak dira, baina heldulekuak kolore berekoak dira.

Zein da Sararen katilua?



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. maila

**29** Haur-parke karratu bat bost eskualde osatzen dituzten 25 karratu txikitan banatuta dago. Irudian, eskualdeak lerro lodi batekin eta kolore desberdinekin markatuta daude. Cristinak bost kulunka jarri ditu haur-parkean. Errenkada, zutabe eta eskualde bakoitzak zehazki kolunpio bat du. Bi kulunka ezin dira elkarren ondoko laukietan egon (elkarren ondokoak esan nahi du alde bat edo izkina bat partekatzen dutela).




Letra batez markatutako karratuetako zeinetan jar dezake Cristinak kulunketako bat?

- A) A      B) B      C) C      D) D      E) E

**30** Frantziskok 1etik 7000 rako zenbaki guztiak ordenan idatzi zituen, hutsunez, komaz edo bestelako sinboloz bereizi gabe. Zenbat aldiz agertzen da «2026» digitu-sekuentzia lortutako katean?

- A) 1      B) 2      C) 3      D) 4      E) 5



[www.canguromat.es](http://www.canguromat.es)



Federación  
Española de  
Sociedades de  
Profesores de  
Matemáticas

[www.fespm.es](http://www.fespm.es)